

BEZEROEKIKO HARREMANAK



Bezeroekin harremanak (partikular edo enpresekin) hiru eratan egingo ditugu: web orrialdez, aurrez aurre edota telefonoz. Produktu guztiak web orrialdean izango ditugu, bakoitzaren ezaugarriekin eta alokairu baldintzekin, baina, zalantzarik izanez gero edo produktua fisikoki ikusi nahi ezker, bezeroak gurekin kontaktuak jarri ahal izateko helbide elektronikoa bat eta telefono zenbaki bat izango dute. Gainera, norbaitek lokalera etortzea nahiago badu, gure lankideetako bat bertan egongo litzateke bezeroei posible den arreta hobereana eskaintzen.

- Telefonoa:
 - Astelehena - Zapatua
 - Goizean 10:00h-14:00h
 - Arratsaldean 16:00h-20:00h
- Lokala:
 - Astelehena - Zapatua
 - Goizean 10:00h-14:00h
- Web orrialdea
 - 24h, 365 egunetan

IRAUN-en bezeroek, "bezero premium" edo bazkide izateko aukera izango dute. Partikular edo enpresa batek 5 produktutik gora alokatzen baditu, gainontzeko aldietan %20ko deskontua izango du.